

KIZKITZA

Itsasargi bat mendi artean

Argazkiak: LETXEZARRAGA



Wikiloc-en
topatuko duzu
ibilaldi hau

GnatKonekta



Sarbidea

Mandubiko bentatik, izen bereko portuaren tontorrean (541 m) eta Azpeitia eta Beasain lotzen dituen GI-2635 errepidearen 15. eta 16. kilometro-puntuaren artean; Beasaindik 8 km pasatxora eta Azpeititik 16 km ingurura.

Mandubia gainera GI-3192 errepidetik ere iritsi daiteke, Beasaingo Salbatore auzotik gora 2 km inguru eginda eta beste 8

kilometro inguruko bide bat eginez Arriaran, Garin eta Astigarreta auzoetan barrena.

Zailtasuna eta errekerimenduak

Ibilbide honek 3,8 km ditu guztira, eta ez du ageri nabarmentzeko moduko zailtasunik. Halaber, ez du eskatzen ekipamendu berezirik, mendi ibilietarako oinetako eta arropa egokiak baino ez. Komeni da ura eta elikagai arinen bat eramatea. Halaber, hartu ahal dela


telefono mugikorra aldean, ezer gertatuko balitz ere.

Deskribapen laburra

Ibilbide osoa Ezkio-Itsasoko udal mugartean igarotzen da, Kizkitza gainaren inguruetan. Gain hartantxe topatuko dugu, hain zuzen, Kizkitzako Andre Mariaren ermita.

Txikoria-belardi ikusgarriak, konifera exotikoen birpopulaketa oparoak, pago inausiz beteriko sail paregabeak eta baso mistoaren zati apartak zeharkatuko ditugu oinez, eta ikusiko dugu zer-nolako aprobeixamendua izan duen mendi honek oso aspaldiko urteetatik gaur egunera arte, ekologiaren, paisaiaren eta kulturaren aldetik lekukotasun baliotsuak utzi dituzten ingurumariotan.

Donejakue Bideko Monumentu Multzoko bideetan barrena egingo dugu kilometro bat baino gehixeago –Gipuzkoatik igarotzen



1 de 7

Gnaturaldia
Konekta



KIZKITZA

den Barneko Bidetik, alegia-, eta Kizkitzako Andre Mariaren ermita bisitatuko dugu. Tenplu hori aipaturiko kultura ibilbideari loturik dago, eta, itsas tradizio aintzatetsiarekin, debozio nabaria du ingurune geografiko osoan: Ezkio-Itsaso, Azkoitia, Azpeitia, Beasain, Zumarraga, Urretxu... Ahozko tradizioak ez ezik usadioak ere transmitituriko errealitatea.

Ibilbidean barrena, atentzioa emango digute ehizarako postu goratuek, baso txikian zehar nonahi ikusiko baititugu han-hemenka. Ehiza lerro tradizional bateko parte dira. Gipuzkoako Foru Aldundiak arautzen ditu haien mugak, baita aldi balioudunak eta erabiltzeko baldintza orokorrak ere. Irailaren amaieratik azaroaren amaierara bitartean praktikatzen da ehiza, eta, hortaz, komenigarria da ondo pentsatzea garai horretan egin nahi dugun txangoa.

Ibilbidearen eta bertan topatzen diren elementu naturalen eta kulturalen deskribapena

Oharra: WP hizkiekin (ingeleseko waypoint-etik eratorriak) adierazten dira ibilbideko gako-puntuak, hala bidegurutze bat dagoelako, nola intereseko kokagunea delako. Eskuineko zutabeen jaso dira kokaleku horien argazkiak eta azalpenak.

Mandubiko bentaren aparkaleku partikularraren atzeko aldetik (WP 1), etortzeko hartu dugun Azpeitia-Beasain errepidera iritenik (WP 2), kaminoz beste aldera joango gara, eta han eskuinetara hartuko dugu, hau da, Azpeitia aldera. Mandubizar baserrira ematen duen hormigoizko pistaren ahora iritsiko gara (WP 3), zeinak hainbat seinaleztapen jasotzen baititu: Donejakue Bidea, GR-34, Itsaso eta Ormaiztegiko herriguneetara joateko bidea eta Kizkitzako ermitara ematen duena -gure jomuga, azken hori-.

Mandubiko benta estrategikoki kokaturik dago izen bereko mendi portuan edo pasabidean, Oria eta Urola haranen artean. Erreferentzia puntu izan da oso aspaldiko garaietatik, izan pertsonak elkartzeko eta harreman sozialetarako, tertuliarako edo entretenimendurako.



Waypoint (WP)



1. Hasiera



2. Errepidean, eskuinera



3. Hartu ezkerreko bidea



KIZKITZA

Aipatutako baserri horretara eta haren ukuiluetara iritsi orduko, aldatu egiten da pistaren bide zorua, eta hartxintxarra izango dugu hortik aurrera. Zelaien parean aurrera jarraituko dugu, behi azienda ikusgarriak larrean direla. Zelaiak igaro eta ezkerretara, hainbat pago inausi ikusiko ditugu lerrokaturik, zeinek partzelen arteko muga egiten baitute. Partzela hori konifera exotikoak aprobetxatzeko baliatzen dute orain 40 urtean baino gehiagoan, eta haren barruan da Mandubi Zelaia izenarekin katalogaturiko trikuharria –gaur egun, lurrez estalirik dago haren ehorzketa arkitektura bikaina, batere ikusten ez dela–.

Pago eta lizar ilara baten artean bildurik eta beti berde-berde egoten diren zipres itxien lerro bikoitz batekin inguratuz, hainbat eratako koniferen sailetan gora abiatuko gara, alboetan laritz

kantoi bana ditugula. Paraje horietan, ez da harritzekoa katagorriren bat izutzea –edo haiek gu harritzea–, baita orkatzen batekin ere, nola pistan hala belar artean... Era guztietara ere, sentsazio atsegin askoa izango dugu halakoak topatutakoan.

Eskuinetarantz irekitzen diren lehen (WP 4) eta bigarren pista (WP 5) utzi ondoren, aurrera jarraituko dugu –azken pista hori 1988an eraikitako hormigoizko txabola txiki baten albotik igarotzen da, Elorri




Historiaurreko hilobi horrek, Beizamako Illaun mendian barrena ageri diren beste bederatzik, eta Kizkitzakoak (Ezkio-Itsason, guri dagokiguna) osatzen dute Murumendi Estazio Megalitikoa. Eusko Jaurlaritzak Kultura Ondasun izendatu zuen multzo hori 2003an, monumentu kategoriarekin.

1997an identifikatu zen, eta, 1998 eta 2000 bitartean megalitoan egindako indusketa lanetan, 40 lagun ingururen gorpuzkiak ez ezik hainbat eratako materialak ere agertu ziren, hala nola kobrezko eta brontzezko puntzoiak, silexezko gezien puntak, zeramika-zatiak eta abar (orain 4.000 urte inguru erabiliak).

Trikuharriak dira historiaurreko gizakiak gure herrian eraikitako lehendabiziko ehorzketa arkitekturaren erakusgarriak, nolabaiteko entitatedunak. Orain 5.000 eta 3.000 urte inguru eraiki zituzten, talde bateko hildakoei lur emateko. Ehorzketa ganbera bat izaten dute, bloke handiz mugatuta eta estalita, zeina lur eta harrien pilaketa antolatuta batez estaltzen baitzen. Ganberaren barrualdean, denborarekin, hildakoak ehorzten zituzten egunero erabili ohi zituzten objektuekin eta ofrendekin, lagun izan zituzten haraindiko bizitzara eginiko bidaian. Hala, egiazko panteoiak osatzen zituzten.

Oso aspaldiko garaietatik, ahozko tradizioak jentilei egotzi izan dizkie hilobi horien eraikuntza lanak. Jentilak sekulako indarra zuten pertsonaia mitologikoak dira, eta, esaten denez, urrez beteriko zintzarriak alboan ziztuztela ehorzten zituzten. Kondaira horrek zintzarri horiek bilatzeko lanak estimulatu izan ditu oraindik oraintsura arte, eta, horrenbestez, trikuharrietako egiturek eta elementuek kalteak izan dituzte.



KIZKITZA

X IX. mendearen amaieran, nabarmen hondatuta ageri ziren mendi hauek, baita Gipuzkoako gehientsuenak ere, oro har. Burdina eta ontzi industriaren eta etxerako egur eskariaren poderioz, gehiegitxo ustiatuak zeuden: mendi asko, erabat zurituta, gainera. Baserritarrek koniferak baliatu zituzten espezie autoktonoak ordeztzeko aukera egoki gisa, batez ere intsinis pinua, bertakoezin lotutako erabilerak erabateko gainbeheran baitziren. Haien errentagarritasun koiuntural handiagorena eta, XX. mendearen lehen erditik aurrera, nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduera tradizionalak uzten-uzten joatearen ondorioz, pinu sartu zituzten lehen garo leku, kultibo soro, larre eta hostozabalen baso izandakoak, eta, ondorioz, erabat aldatu zen, besteak beste, mendietako paisaia.

izenekoa, aurrealdean idatzita daukanez-.

Bideak aldapatxo batean gora egiten du, Donejakue Bidean barrera –Mandubia gaina eta Ormaiztegi arteko tartean-, eta hostozabalen eta konifera exotikoen birpopulaketan artean igarotzen da, zeinak sasiak eta sastrakak lodi estalita ageri baitira –babesleku segurua orkatz eta basurdeentzat-. Handik pixka batera, Altzigarraga muinoaren



balkoi ikusgarrira ailegatuko gara (WP 6).

Egundoko ikuspegia izango dugu aurrez aurre, sekulakoa. Santa Lutzia harana, Gabiria herrigunea, Arrolamendi mendi lerroa, Aizkorriren gain dotoreak eta abar. A zer nolako oparia zentzumenentzat!

Puntu horretan, orain artean jarraituriko Donejakue Bidearen trazatua utzi eta eskuinetarantz hartuko dugu, eta norabide horretan irekitzen den bigarrean sartuko gara (Kizkitzarako bidea seinalatzen duen poste batekin), laritz pinuz osaturiko bi ilararen artean. Bidea aldapa koskor batekin hasten da, aurreko tartea bezalaxe, eta koniferen birpopulaketak eta hostozabalen masa zaharrak izango ditugu tartean-tartean, Kizkitzako kota irtenaren hegoaldeko hegalararen ertzetik igaroz.

Waypoint (WP)




4. Aurrera, alboetako bidea saihestuz



5. Aurrera, alboetako bidea saihestuz



6. Eskuinera egingo dugu



KIZKITZA

Bide horretan aurrera segituko dugu, ezkerretara zein eskuinetara irekitzen diren bideak utziz (WP 7, 8, 9 eta 10).

Berehalaxe iritsiko gara Arrobiagako muinora (WP 11). Pasabide estrategiko horretatik, abialeku izan dugun Mandubia gainera, Ezkio eta Itsaso herrigunetara eta Santa Lutzia haranera hartu daiteke, bertan instalatutako zutoinetan jasota dagoen moduan.

Arrobiaga toponimoak berak dioen moduan, paraje hauetan nonahi ageri diren pitzadura sakonak, labar-moduko bihurturik, harrobien aprobetxamenduaren emaitza dira. Horietan, kareharri eta tuparrien estratuak aprobetxatzen zituzten oraindik oraintsura arte. Lauzatan erraz zatitzeko modukoak izaki (barrenak edo palankak baliatuz), inguruko landa obretan eta eraikuntzetan baliatzen zituzten.

Puntu horretan bost pista gurutzatzen dira, eta iristen garenean eskuinetan dugunean aurrera jarraituko dugu, gailurrera igoz. Ibilbide horretan gora goazela, bidearen eskuinetan, merezi du horma baten obrari erreparatzea, zeina harri lehorrez egina baita, aurretik zanga bat duela. Garai batean lurzatiak banatzeko sistema bati dagokio. Baina, partzelak ez ezik, udal mugarteak, probintziak eta are herrialdeak mugatzeko ere baliatzen zen sistema hori.

Bideko gainerako zatietan bezalaxe, pago, haritz, lizar, elorri beltz, elorri zuri eta bestelako sastraka

Ondoz ondo dauden bi jabetza mugarriztatzeko, tarteko lurren jabeetako batek zanga bat irekitzen zuen muga lerroan bertan, bere lurren aldetik. Ateratako lurrak eta harriak barneko aldean ipintzen zituen, eta pila hori batzuetan harri lehorrak gainjarrita osaturiko murru batekin indartzen zuen.

Harri lehorrean altxaturiko horma horiek (hau da, aglomeratzailerik gabe eginak) betiko ahaztutako eta galdutako prozesua dira, beste hainbat teknika eta praktika tradizionalekin ere zoritxarrez gertatu den moduan. Hori horrela, hemen ikusten ditugun aurriak, txikiak izanagatik ere, ondare lekukotasun garrantzitsua dira: izan ere, erakusten dute zer metodo eta praktika baliatu izan diren oso aspaldiko garaietatik hasi eta ia gure egunetara bitarte, tokian tokiko natura baliabideei ahalik eta etekinik handiena ateraz, lanerako eta bizitzako eremuak antolatze aldera.

Waypoint (WP)



7. Aurrera



8. Kizkitzara doan bide hau saihestuko dugu, aurrerantz



9. Aurrera



10. Aurrera




11. Bidegurutzean, eskuinera, gorantz doan bideari ekingo diogu



KIZKITZA

autoktonoak nagusi ditugula bidean –baita hainbat eta hainbat konifera ere–, ibilbide arrokatsuak zein lurtsuak igaroz, aldapatxo labur bat igo eta tontorreko zabalgunera iritsiko gara (675 m). Hantxe izango dugu parez pare Kizkitzako ermita.

Merezi du tenpluaren inguruan kontserbatzen den baso txiki zahar eta monumental hau bisitatzea,



pago inausiz osaturikoa eta ohiz kanpokoa. Ehun urtetik gorako zuhaitz hauek paraje apartekoa eratzen dute, eta izugarriak dira haien pertsonalitatea eta edertasuna; horretaz gainera, landare eta animalia organismo ugari inguratzen dute (onddoak, intsektuak, txoriak, urubiak, ontzak, arratoiak, muxarrak...).

Ohiz kanpoko formek sorturiko ikuskizun guratsuaz gozatuz, minutu batzuetan atsedean hartu ahal izango dugu nonahi ageri diren mahai sendoetako batean, ermitako arkuperen batean edo jai ospakizunetarako kantina izateko girotutako etxolan. Eta, atsedenditxo horren ostean, abiatu garen tokira itzuliko gara.



Kontatzen dutenez, egun batean auzotarrek argi bat ikusi zuten Kizkitza mendi gainean, eta, hara iristean, Andre Mariaren irudiarekin topo egin omen zuten. Orduan, erabaki zuten ermita bat altxatzea haren omenez. Baina herrian, eta ez mendi tontorrean. Alferrik izan zen guztia, antza: izan ere, irudia bueltatu egiten zen mendi gainera. Hori ikusirik, auzotarrek erabaki zuten Kizkitza gainean altxatzea ermita.

Kizkitzako Andre Mariaren jatorrizko ermita 1622an altxatua zen, eta suak kiskalita geratu zen 1959aren amaieran. Gaur egungoa 1962an altxatua da, auzolanean. Egurrezko egitura dauka eta harlangaitz hormaz eginik dago: oinplano angeluzuzena eta bi isuriko estalkia ditu (1985ean berritua). Fatxada nagusiko sarrerak puntu Erdiko arkua dauka, bai eta ur bedeinkatuaren ontzia ere eskuineko aldean. Beste bi sarbide ere baditu albo banatan, arkuak horniturik. Arkupe batek babesturik daude alboetako bi sarrera horiek, eta batek, gainera, egurrezko solairuartea ere badu, mahai eta guzti. Atzeko aldean, sakristia dago, zeina punta formako leiho batek argitzen baitu. Teilatuan, berriz, bi matxoi puntadun dituen kanpai horma bat. Paramentuak luziturik daude, eta sabaian, berriz, bistako egurrak ageri dira. Presbiterioa nabearen gainerakoa baino garaia goa da, eta kanpoalderantz egiten du gorputz laukizuzen gisa, lau isurialdeko estalkiarekin. Aldarean, hiru arraun dituen itsasontzi bat ageri da, Rosarioko Andre Mariaren prozesio irudi bat gainean duela –XVII. mendeko irudia, Itsasoko parrokiatik hartua–.

Irailaren 8an izaten da bertako jaieguna, eta osteko programa ludikoa gau partean amaitzen da Itsasoko herrigunean.

Itsasoarekin tradizio eta lotura zuzena du; horren arrazoitzat hartzen da inguruotako basoetako arbolak baliatzen zirela ontzioletan, besteak beste, arrantza ontziak egiteko. Hain zuzen ere, arrantzaleek sustatu zuten 1962an itsasargi bat instalatzea –Tarifako portutik ekarria– tenpluaren oinarriaren alboko plataforman sarturiko zutoin baten puntan, arrantzaleek ermita itsasotik ikus zezaten.



Pagoak 40 m garai izatera ere iristen dira, modu naturalean eta espazio irekietan. Kimaketa edo inausketa hainbat zuhaitz ustiatzeko garai bateko modu tradizionala da (haritzak, pagoak, lizarrak, eta abar). Pago landareak bi metro ingurura ebakitzen ziren, eta, zuzendutako hainbat ebakiren bidez, kimu berriak ematen zituzten hainbat garaieratan, zeinak batez ere egur ikatza egiteko baliatzen baitziren, betiere arbolari zutik ertsiz eta, ondorioz, pagatxak animalien eskura ipiniz.

Enbor laburrak, lodiak eta begitsuak dituzte, argimutil itxurarekin; inausi eten horien konfigurazio bereziak nortasun eta edertasun berezia ematen dio basoari. Zuhaitz horiek egiazko monumentuak dira, eta garai bateko kultura eta bizimoduaren berri ematen digute, gaur ahaztuta geratu badira ere, ohikoak baitziren orain bost hamarkada.

Hala, ermitaren atzeko aldean gaudela (WP 12), zabalgunearen erdiz ezkerretatik, zelaian behera abiatzen den tarte labur bat igaroz eta beste mailakatu batean behera eginda, bide zoru ona duen pista zabal batera iritsiko gara berehalaxe (lotura horren ostean, berehalaxe topatuko dugu errepikagailu baten dorrea, berdez estalirik). Koniferen birpopulaketen artean ederki markaturiko pista

horretan aurrera eginda, sigi-sagan beherantz egiten duen tarte batean eta lursailean sarturiko bi trenbide trabesen artean sarturik, beste pista baten trazatura iritsiko gara, eta, horra iritsitakoan, eskuinetara hartuko dugu (WP 13).

Bideak «S» baten forman egiten du beherantz, eta handik pixka batera iritsiko gara hasieran aipatu dugun Elorri txabolara (WP 5). Hainbat

pago bikainez eta bi sekuoia ikusgarritz babesturik, etxola horrek atarte txiki bat dauka aurreko aldean, zeina babestoki gisa baliatu baitezakegu beharra izanez gero.

Handik metro batzuk behera eginda, beste pista batekin elkartzen den tokian, ezkerretara hartuko dugu eta abiapuntura iritsiko gara.

Waypoint (WP)



12. Ermitaren burualdetik behera doan bidea jarraituko dugu



13. Bide nagusia hartuko dugu, eskuinera



Gogoratu mendia, basoa eta hondartzazaindu behar dituzula, errespetatu animalia eta landareak eta eraman sortutako zaborra etxera bueltan.



gipuzkoa.eus/eu/web/ingurumena/gnaturaldia/konekta